

KARMEL SORTA
Zuzendari: Julen Urkiza



**AITA GABIREL JAUREGI URIBARREN
(1895-1945)**


Edizioaren prestatzaile:
JULEN URKIZA

© Ediciones El Carmen (KARMEL)
I.S.B.N.: 84-7305-077-0
Legezko gordailua: S.S. 299/95



Laguntzaz

Markina
1995



KARMEL SORTA - 7

AURKIBIDEA

| | |
|------------------|----|
| Aurkibidea | 7 |
| Hitzaurrea | 11 |

I. BIZITZA ETA GARAIA

| | |
|---|-----|
| Euskal Herriko eta munduko 50 urteko kronologia (1895-1945) <i>J. Urkiza - A. Lobera</i> | 17 |
| Gabirel Jauregiren bizitza <i>J. Urkiza - P. Uribarren</i> | 71 |
| Gabirel Jauregiren giza zertzeladatxoak <i>L. Baraiazarra</i> | 105 |

II. IDAZLANAK

| | |
|---|-----|
| Gabirel Jauregiren Bibliografia <i>J. Urkiza</i> | 111 |
| Pisia <i>J.R. Etxebarria</i> | 115 |
| Kimia <i>J. Iturbe</i> | 123 |

| | |
|---|-----|
| Gabirel Jauregiren lanak astronomiaren arloan <i>Txema Preciado Saez de Ocariz</i> | 131 |
| Aita Gabirel itzultzaile <i>A. Lobera</i> | 135 |

III. BERAREN HERRIA: ARAMAIO

| | |
|--|-----|
| Historia <i>J.R. Elejalde</i> | 151 |
| Erlijiotasuna Aramaioko haranean orain dela ehun urte <i>A. Unzueta</i> | 159 |
| Euskal idazleak <i>L. Baraiazarra</i> | 167 |
| Bizkaiera <i>G. Garate</i> | 183 |
| Euskara <i>Isaak Atutxa Etxebarria</i> | 215 |
| Hizkuntz errealitateaz <i>Patxi Salaberri Muñoa</i> | 253 |
| Hikako berbetea Aramaioko Muxika-Olaetan <i>Pedro Puxana</i> | 261 |
| Toponimia <i>Patxi Uribarren</i> | 277 |
| Auzotasuna edo nekazal hiritartasuna <i>J. Martinez Montoia</i> | 325 |
| Euskal Jaiak Aramaion (1899) <i>Patxi Salaberri Muñoa</i> | 331 |
| Musikariak <i>Floren Unzueta</i> | 345 |
| Ze kolore ezauketan dozu? <i>Txema Preciado de Ocariz</i> | 351 |

IV. GEHIGARRIAK

| | |
|--|-----|
| "Karmen'go Argia"ko G. Jauregiren idazlanak <i>A. Lobera - J. Urkiza</i> | 361 |
| Izadi - Iztia | 369 |
| Kimia | 429 |
| Pisia | 443 |
| Enparaukoak | 467 |
| Aita Angelo Jauregiren "Karmen'go Argia"ko Idazlanak <i>A. Lobera - J. Urkiza</i> | 481 |
| Testuak | 489 |

HIZKUNTZ ERREALITATEAZ

Damugarri litzake baiña
Gozetan dozun gloria,
Ikusitea dana galduta
Zu buruz beera iarria;
Damugarria izanik zu gaur
Euskaldun bizi tokia,
Amai edaten gero ikustea
Umeak erdal titia.

F. Arrese Beitia

0.- SARRERA GISA

Berri xamarrak dira Euskal Herrian euskararen bizitasun-egoerari buruzko informazioa jasotzen duten lanak, batik bat era sistematiko batez burutuak. Egia esan, 1981era arte, ikerlari bakan batzuk argitaratu datuak baino ez genituen eskuen artean, sarri askotan gorabehera eta arazo nahikotxo erakusten zituztenak gainera.

Euskal Autonomi Elkartean, 1981ean egindako Errolda edo Zentsuari zor zaio euskararen ezagutza eta gaitasunari buruz dagoen lehen datu-sorta zabal-sakona. Harrezkero, beste bi izan dira burutu diren biztanle-erroldak (1986an eta 1991ean), datuak gero eta modu sistematikoagoz bildu direlarik.

Hiru Errolda ezberdin horietatik ateratako taula eta datuetan oinarrituz, Aramaioko hizkuntz errealitatea zehazkiago ezagutzeko ahalegina egin nahi genuke hemen. Lantxo honen bitartez, bada, argitaratutako datu garrantzitsuenak¹ aztertu, baloratu eta hamar urte horietan antzeman daitekeen bilakaera orokorra azaldu nahi genuke.

¹ Besterik adierazten ez den bitartean, 1986 eta 1991ko datuak Eustatek argitaratuak dira. 1981ekoak, aldiz, J. I. Ruiz Olabuengaren *Atlas lingüístico vasco* (Servicio Central de Publicaciones-Gobierno Vasco, Gasteiz, 1984) liburutik ateratakoak.

Erraz atera ahal izango da hemendik Aramaioko bizilagunak etorkizun hurbilerako urratzen eta, aldi berean, finkatzen ari diren hizkuntz ibilbide nagusia. Eta, gura izanez gero, norabidea artezteko aitzakia ere.

Baina onar bekite, aurrera egin baino lehen, pare bat ohar metodologiko.

Bat. Ezin ahaz daiteke hiru errolda diferentetako datuak erabiliko direla hemen, batzutan ezberdin planteatutako galderei erantzuten dietenak gainera. Alde nabarmena dago, esaterako, 1981ean egindakotik beste bietara. Horrelakoetan -baina ezinbesteko izan denean bakarrik-, egokitu eta interpretatu egin dira datuok beste errolda bietakoekin konparagarri suerta zitezen.

Bi. Emango diren datuek, bertan adieraziko den bezala, ez dute beti Aramaioko biztanlegoaren kopuru osoa adieraziko. Hizkuntz gaitasunaren neurketak, adibidez, derrigorezkoa du hitzegiten jakitea. Hortaz, ezberdina izango da "herriko biztanleria" delakoaren kopuru orokorra eta "2 urte eta gehiago" (mintzatzen direnak, alegia) dituztenena. Dena den, zehazkiro adieraziko da horrela gertatzen denean.

1.- HIZTUNEN BILAKAERA

1981etik 1991ra bitartean, herri askotan suertatu den hustutze-prozesuarekin batera, Aramaion ere biztanleriak beherantz jo zuen (bi urtetik gorako 1.400 biztanletik 1.287ra jaitsi zen). Alabaina, biztanle-kopuruaren jaitsiera horrek ez zuen eragin proportzionalik izan hizkuntz gaitasun edo ezagutzaren arabera gure gizartean bereiz daitezkeen hiru sektoretan², izan ere datuek bestelako berezitasunik erakusten baitzuten (ikus T.1 grafikoa).

Euskaldun gisa agertzen direnen kopuruak, esaterako, gorabehera txiki bat jaso du hamar urtetako epe horretan. 1981etik 1986ra, biztanlegoa gainbehera zihoanean, euskaldunen kopuruak gorantz egin zuen nabarmenki, bai zerbaki absolututan (40 euskaldun gehiago) bai portzentualki (zortzi puntu baino gehiago). Halere, hamar urte horietako azken erdialdean, Euskal Autonomi Elkartearen ez bezala, euskaldunen kopurua jaitsi egin da Aramaion, hots, 1.174 izatetik (% 89,07) 1.106 izatera (% 85,94).

Bestalde, lehen grafikoan ikus daitezkeen bezala, "Ia-euskaldunak" multzokoak lehenengo bost urtetan mantendu egin ziren portzentualki, 1986tik aurrera ia lau puntutako gorakada izan zutelarik.

Erdaldun hutsen kopurua, aldiz, modu nabarmenean jaitsi zen 1981-86 urteetan, harik eta hurrengo bosturtekoan beherakada baretzen hasi zen arte.

² Alfabetizazioaren bidez lortzen diren trebetasunak albo batera utzirik, ulermena eta mintzamaena izango dira hizkuntz gaitasuna neurtzeko erabiliko diren irizpide bakarrak. Beraz, Eustatek egindakoari helduz, eta multzoen barnean kasuistika desberdina egon daitekeela jakin arren, honako hiru hauetara bilduko dira hiztun guztiak: "Euskaldunak" multzoan euskaraz *ondo ulertu eta hitzegiten* dutela adierazten dutenak sartuko dira; "Ia-euskaldunak" izenekoa euskaraz *nekez ulertzen* dutenek eta *ongi ulertu* baina *nekez mintzatzen* direnek osatuko dute. Multzo berekoa litzateke inoiz aipatua izan den fenomeno bitxia, hots, *ongi hitzegin* eta *nekez ulertu*. Azkenik, "Erdaldunak" delako multzoak euskaraz tutik ere ez dakitenak adieraziko ditu.

T.1.- Hizkuntz gaitasuna

| | 1981 | | 1986 | | 1991 | |
|---|-------|---------|-------|---------|-------|---------|
| 2 urte eta gehiagoko biztanleria | 1.400 | % 100 | 1.318 | % 100 | 1.287 | % 100 |
| Euskaldunak | 1.134 | % 81 | 1.174 | % 89,07 | 1.106 | % 85,94 |
| Ia-euskaldunak | 80 | % 5,72 | 73 | % 5,54 | 116 | % 9,01 |
| Erdaldunak | 186 | % 13,28 | 71 | % 5,39 | 65 | % 5,05 |

2.- ARAMAIOARREN AMA-HIZKUNTZA

Esan dezagun, ezer baino lehen, 1981eko erroldan ez zela ama-hizkuntzari buruzko daturik jaso. Erabil ditzakegunak 1986 eta 1991koak dira.

Oro har, azpimarragarria da nola jaitsi den bost urtetan ama-hizkuntza euskara zeukatenen kopurua (% 85,39tik % 84, 20ra), euskara eta gaztelera, biak, daukatenen mesedetan (% 1,42tik % 2,98ra).

Halaber, jaitsiera txiki bat atzematen da ama-hizkuntza erdara daukatenen artean.

T.2.- Aramaioarren ama-hizkuntza

| | 1986 | | 1991 | |
|------------------------------|-------|---------|-------|----------|
| Biztanleria | 1.342 | % 100 | 1.310 | % 100 |
| Euskara | 1.146 | % 85,39 | 1.103 | % 84, 20 |
| Erdara³ | 177 | % 13,19 | 168 | % 12, 82 |
| Euskara eta gaztelera | 19 | % 1,42 | 39 | % 2, 98 |

Hizkuntz gaitasunaren grafikoa (T.1) eta ama-hizkuntzarena (T.2) erkatuz gero, Aramaioko gizarteak daraman hizkuntz dinamikaren informazioa eskura genezake, batik bat kasu konkretuen gainetik dagoen joera nagusiarena. Ikus dezagun, bada.

1986ko erroldaren arabera, aski garbi somatzen da euskara etxeko hizkuntz transmisioaren bitartez zekartenen kopuruari (euskara edota euskara-erdara ama-hizkuntza gisa zutenak: $1.146+19 = 1.165$) ama-hizkuntza erdara zeukatenena erantsi behar zaiola bi

³ Erdara hitza, gogoratu beharrik ez dago, euskara ez den beste edozein hizkuntza adierazteko erabili ohi da: gaztelera, frantsesa, etab.

urte baino gehiagoko biztanlerian dagoen euskaldunen kopurua (1.174) eta urte bi baino gutxiagoko 24 haurretatik ama-hizkuntzagatik euskaldunak direnena osatu ahal izateko. Beste modu batez esateko, etxetik erdaldun direnen integrazio-joera nabarmena antzematzen da Aramaion, euskaldun bihurtzearen aldekoa hain zuzen.

Horretaz gainera, 1981eko datuekin parekatuta, gorago adierazi emaitzak agertuko zaizkigu: bi urte baino gehiagoko biztanleria beherantz doan bitartean (1.400 biztanletik 1.318ra pasatzen baita), areagotu egiten da euskaldunen kopurua (1.134tik 1.174 izatera), gutxitu egiten da erdaldun hutsena (186tik 71ra jaitsiz) eta esan daiteke portzentualki mantendu egiten dela Ia-euskaldunak direnen kopurua. 1981-1986 bitarteko bost urte horiek, beraz, nolabaiteko euskalduntze-joera erakusten dute.

1991ko datuen arabera, ordea, gauzak ez bide dira hain optimistak. Errolda burutzean euskara mantendu izan balute ama-hizkuntza bezala izan zutenek, 1.142 euskaldun agertu beharko ziren inkestan (euskara + euskara/erdara: 1.103+39). Erroldak 1.106 baino ez direla adierazten du. Nahiz eta taulen konparaketa egokia egiteko kontutan izan behar diren bi urte baino gutxiagoko haur guztiak (23) euskalduntzat hartu, aurreko bost urtetako egoera hankaz gora jartzen hasia dagoela ondorioztatzen da.

Aurreko bosturtekoan ez bezala, oraingoan zinez aitor daiteke txikitzen euskara edoski eta ikasi (?) zutenetatik hainbat pertsona (eta ez ahaztu joera soziolinguistikoez ari garela, ez kasu konkretuez) euskara *galtzeko bidean* ari direla, erroldan "ia-euskaldunak" izeneko multzoan agertzen baitira, erdaldun huts izatetik euskalduntze-bidera etorri direnekin batera⁴.

Dena den, egitate horren interpretazio leunagorik ere aurkez liteke agian, hots: ama-hizkuntza euskara eta erdara, bi-biak, dauzkatela dioten guztiek (39ek hain zuzen) ez dute ziurtatzen euskararen transmisioa, euskaldun bihurtzen ez duen bide batean sartuak baitrudite. Bestela pentsatu arren, jokamolde sasi-elebidun horretan ez da inolaz ere azaltzen funtzionamendu orekaturik. Aitak, amak edota aitaita-amamek euskaraz jakin arren, etxe-ko hizkuntza nagusiki erdara -partaide guztiek ezagutzen duten hizkuntza, alegia- izatean, haurra "ia-euskaldun" bihurtuko duen oinarritzko ulertze-maila huts bat baino ez da ziurtaturik gelditzen.

3.- ARAMAIOARREN ALFABETATZE-MAILA

Datuen taulak ikusi baino lehenago, argi dezagun lehendabizi hemen ez dela Aramaioko erdaldunen alfabetatzeaz edota euskaldunek beste hizkuntzetan dutenaz ezer esango⁵; hemen bestelako alfabetatzeaz arituko gara, hots, euskaraz irakurri eta idazteko ezinbestekoa den horretaz hain zuzen.

⁴ Gogoratu "ia-euskaldunak" izeneko multzo horretan joera integratzailekoak zein desintegratzailekoak elkartzan direla, euskalduntze prozesuan "datozenak" eta "doazkeenak" alegia.

⁵ Izan ere, 1991ko erroldaren arabera, herri guztian 5 baino ez dira analfabeto gisa agertzen direnak.

Harira etorrita, eta zenbaki abstolutuak alboratuz gero, nabarmena da 1991ko alfabetatuen portzentaia puntu t'erdia baxuagoa dela 1981ekoena baino. Alabaina, harrigarriagoa da 1986tik 1991ra bitartean gertatutako alfabetatuen kopuruaren urritzea, bost urte horietan ia bi puntu t'erdiko jaitsiera burutu baita.

1986an partzialki alfabetatuak zeudenen portzentaia zertxobait jaitsi badira ere, bitxi samarra suertatzen da euskaldungoaren erdia baino gehiago izaten jarraitzea.

Bestalde, eta hau izan daiteke elementurik ikaragarriena, euskal gizarteak alfabetatzeko inoiz baino baliabide gehiago eskaintzen duenean, Aramaioko euskaldunen artean harrigarriro areagotu da euskaraz alfabetatugabe daudenen kopurua. Horren arrazoiak nonbait ez lirakeke baliabide eskasian bilatu behar, euskarari sozialki eta pertsonalki eman nahi zaion lekuan baizik.

Garbi aitor daiteke, beraz, alfabetizazioaren arloan Aramaioko euskaldunen ahalegina atzeraka joan dela (doala?) nabarmenkiro, zenbakiak adierazten duten legez:

T.3.- Euskaldunen alfabetatze-maila

| | 1981 | | 1986 | | 1991 | |
|---|-------|---------|-------|---------|-------|---------|
| 2 urte eta gehiagoko euskaldunak | 1.134 | % 100 | 1.174 | % 100 | 1.106 | % 100 |
| Alfabetatugabeak | — | % | 63 | % 5,36 | 90 | % 8,14 |
| Partzialki alfabetatuak | ---- | % | 618 | % 52,64 | 578 | % 52,26 |
| Alfabetatuak | 467 | % 41,18 | 493 | % 42 | 438 | % 39,60 |

Nolanahi ere den, bitxiago eta izugarriagoak bilakatzen dira aurreko fenomeno hauek guztiak Euskal Herrian gertatzen den dinamarekin erkatzen direnean, erabat kontrajarriak agertzen baitzaizkigu joera orokorra eta Aramaion antzematen dena. Izan ere, Euskal Herriko euskaldun alfabetatuen kopuruak igoera nabarmena erakusten du: 1981ean % 46,5, 1986an 62,08 eta 1991n 67,86.

Erroldetan "Ia-Euskaldunak" bezala agertzen direnen artean, bestalde, fenomenoek joera paraleloa baina areagotua erakusten dute. Ia-euskaldunen kopurua bost urte horietan nabarmen igo dela ahaztu gabe, egoera aski orekatu batetik (hiru taldeetako bakoitzari ia-euskaldunen heren bateko esparrua baitzegokion), alfabetatugabeen gehiengoa erakusten duen egoerara iritsi da. 1986tik 1991ra bitartean, esaterako, pasiboak beherantz joan diren neurrian, alfabetatuen portzentaia sei puntu baino gehiago jaitsi da (% 32,87tik % 26,72ra). Aldi berean, alfabetatugabetzea harrigarriro areagotu da (% 28,77tik % 50eraino), ondoko taulan ikusten den bezala:

T.4.- Ia-Euskaldunen alfabetatze-maila

| | 1986 | | 1991 | |
|-------------------------------------|------|---------|------|---------|
| 2 urte eta gehiagoko ia-euskaldunak | 73 | % 100 | 116 | % 100 |
| Pasiboak | 28 | % 38,36 | 27 | % 23,28 |
| Alfabetatugabeak | 21 | % 28,77 | 58 | % 50 |
| Alfabetatuak | 24 | % 32,87 | 31 | % 26,72 |

Aurrekoan bezalatsu, Euskal Herriko egoera guztiz bestelakoa da ia-euskaldunen kopuruari dagokionez. Alfabetatugabeek bost puntutako jaitsiera izan dute (1981ean % 13,44, 1986an 10,87 eta 1991n 8,76) eta hamazazpi puntutakoa partzialki alfabetatuek (1981ean % 40,04, 1986an 27,05 eta 1991n 23,37).

Datu hauek eskuetan, errazago uler daiteke prentsa idatziak Aramaion duen arrakas-tarik eza⁶.

4.- EUSKARA ARAMAIOKO KALEETAN

EKB-k 1993an burututako ikerketaren bidez⁷ antzeman daitekeenaren arabera, Aramaioiko bizilagunen hizkuntz ezagutza edo gaitasuna kaleetatik zehar hitzegin ohi dutena baino dexente altuagoa da.

Azken erroldan (1991ekoan, alegia) batz besteko ezagutza % 85,94 baldin bazen, 1993ko erabilpen maila % 57,81ekoa zen. Benetan kezkarria egoera. Are kezkarriagoa gogoan hartzen bada hizkuntz leialtasun gutxien erakusten duen adinak, hots, herriaren bizitza eta dinamika sozio-politiko, ekonomiko eta kulturala bideratzen eta sostengatzen dituenak eta kopuruan ere adin-talde zabalena denak (25-64 urte bitartekoa 1991n 742 pertsonak osatzen zuten⁸) hain zuzen, nabarmenki diharduela gaztelaren aldeko apostua egiten.

⁶ Euskara hutsez argitaratzen den *Egunkaria*, esaterako, bizpahiru pertsonak baino ez dute erosten eta ez egunero, hau da, saltzen diren egunkari guztien % 1 baino gutxiago. *Argia* astekaria, bestalde, 15 helbidetara iristen da. Hurbileko prentsa ere ez da askoz gehiago hedatzen, *Arrasate Press* astekaria 10 harpidedunek baino ez baitute jasotzen. Eta hauekin, aldizkaririk eskuragarrienak baino ez ditugu ekarri hona.

⁷ Iñigo, Joxe Jabier: "Euskararen kale erabilpena Euskal Herrian: EKBren neurketaren emaitzak", *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 13-14, 1994, 51-76 or.

⁸ Adinaren araberrako egoera honako hau da Aramaion:

| | 1986 | | 1991 | |
|------------------------|-------|--------|-------|--------|
| Haurrak (0-14 urte) | 216 | %16.10 | 189 | %14,43 |
| Gazteak (15-24 urte) | 226 | %16,84 | 167 | %12,75 |
| Helduak (25-64 urte) | 696 | %51,86 | 742 | %56,64 |
| Zaharrak (65-... urte) | 204 | %15,20 | 212 | %16,18 |
| Denetara | 1.342 | %100 | 1.310 | %100 |

Garbi agertzen da populazioaren erdia baino gehiago osatzen dutela 25-64 bitartekoek (% 56,64).

T.5.- Aramaioarren hizkuntz ezagutza eta erabilpena

| | EZAGUTZA 1991 | ERABILPENA 1993 (EKB) |
|------------------------|------------------|--------------------------|
| Haurrak (0-14 urte) | % 89,33 | % 64,76 |
| Gazteak (15-24 urte) | % 84,62 | % 64,29 |
| Helduak (25-64 urte) | % 82,99 | % 40,21 |
| Zaharrak (65-... urte) | %94, 61 | % 75 |
| Datu orokorrak | % 85,4 | % 57,81 |

Egia esan, aramaioarrek etxean hitzegiten omen duten hizkuntzari buruzko zenbakiek antzeko jokamoldea erakusten dute, familia barruko hizkuntz erabilpenezko portzentaiak kalekoak baino altuxeagoak (bederatzi puntu t'erdi) badira ere:

T.6.- Aramaioarren familia hizkuntza

| ETXEKO HIZKUNTZA (1991) | | |
|-------------------------|-------|---------|
| Biztanleria | 1.310 | % 100 |
| Euskara | 882 | % 67,33 |
| Erdara | 209 | % 15,95 |
| Euskara eta gaztelera | 219 | % 16,72 |

Euskal Herrian kaleko erabilpenari buruz ditugun datuak⁹ kontutan harturik, eta Aramaioiko biztanlegoaren hizkuntz ezagutza edo gaitasun maila parekoa edo altuagoa duten herrietan antzematen den erabilpenarekin erkatuz gero, honako portzentaia hauek ateratzen zaizkigu:

| | BIZTANLEAK 1991 | EZAGUTZA 1991 | ERABILPENA 1993 (EKB) |
|----------|--------------------|------------------|--------------------------|
| Araba | | | |
| Aramaio: | 1.287 | % 85, 94 | % 57, 81 |

⁹ Angelun izan ezik, neurketa hau bost milatik gorako herri guztietan burutu zen. Halere, gogoan hartu behar da ez zela bost mila biztanle baino gutxiago duten guztietan burutu, aukeratutako zenbaitetan baizik.

| | | | |
|-----------------|--------|---------|---------|
| Bizkaia | | | |
| Elantxobe: | 542 | % 93,91 | % 83,22 |
| Etxebarria: | 772 | % 93,65 | % 81,15 |
| Lekeitio: | 7.277 | % 86,99 | % 70,90 |
| Gipuzkoa | | | |
| Azpeitia: | 13.155 | % 87,52 | % 78,25 |
| Belauntza: | 292 | % 85,27 | % 73,11 |
| Mutriku: | 4.469 | % 84,14 | % 69,92 |
| Nafarroa | | | |
| Araitz | 558 | % 96,59 | % 56,22 |
| Etxalar | 825 | % 90,42 | % 54,93 |
| Goizueta | 947 | % 98,31 | % 94,73 |
| Zubieta | 319 | % 97,18 | % 66,67 |

Datuak begi bistan, badirudi gaur egun Aramaioko kaleetako hizkuntza euskara ez den beste bat bihurtzen ari dela. Ildo horretan, aramaioarren hizkuntzarekiko leialtasun(ik ez)a Nafarroako Araitz eta Etxalarreko biztanleen parekoa da, ia herri euskaldun huts iza-
tetik erabilpena maila berdintzura iritsi baitira hirurak¹⁰.

Joera soziolinguistiko horri eutsiz gero, sozialki gazteleraren barnean erosoago sen-
tituz gero, Aramaioren euskalduntasuna mito bihurtzeko zorian egon liteke.

1995-II-21

Patxi Salaberri Muñoa

¹⁰ Guztiz bestelakoa litzateke -eta agian hizkuntz leialtasuna gorde nahi duen herri euskaldunak eredu gisa hartu beharreko modukoa- Ondarruko kasua (10.338 biztanle), non erabileraren proportzioa ezagutzaren gainetik baitago: Ezagutza % 78,45 eta Erabilpena % 79,08.